

## Euskaltzaletasunaz bi gogoeta

Piarres AINTZIART

### Euskaltzaletasunaz zer erran?

Bascophile, zer da hori? Nor da? Euskal Herria maite duen bat, edo euskaldunak, euskaradunak, azkenean eta printzipioz, euskara maite duena? Atxiki behar den gauza, ala erabaki behar dugun errealtate bizia, izate bat?

Gure duden artean badago, hasteko badaukat segurtasun bat, ziurtasuna :gai guzietan bere lekuan dagoela euskara, bere etxean. Gure mintzaira hizkuntza horiena bada, munduko adituek diotenez, naturalki, esentziaz, definizioz denetan dabil, gauza guzietan hitzak ezarriz, hitz guziz gauzak ekoiztuz. Hitzen mirakullua!

Honela 25 urte ulertu nuen euskararen ahala, argitze batean, errebelazio batean, lruñean, Udako Euskal Unibertsitatearen (U.E.U.) ikastaldiak zirela eta: medikuntza, informatika, zientzia zehatzak, psikologia, psikanalisia, filosofia, denak euskaraz. Uzkur eta herabe izan gabe. Menturaterik ere ez zen beharrik, honela senditu nuen egoera. Giroa. Eta gero UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxean lan egin genuen, honek Aristoteles harturik, harek Platon. Bataren orrialde bat itzuli, bestearen testu bat aztertu, Aristotelesekin euskaraz, Platonez euskaraz, zer loria izan zen! Ezpirituaren plazer ezin erranezkoa! Gure mintzaira konkretuegia dela? Erran holakorik David Hume ingles filosofo enpiristar! Badituzte bai erdaldunek filosofiko hitz egokiak : esentzia, natura, hedonismoa, axioma, entitatea, ideia, kausa, denak grekoak eta latinak eskainiak. Munduko mailegatzaile guziak, junta zaitzete!